



2012.09.25AN UDALBATZAK EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK:

Ramón Ajuria Uranga jauna (Lehendakaria)
Miren Edurne Uribarren-Iturrieta Larrañaga andrea
Idoia Beitia Izurrategi andrea
Lierni Altuna Ugarte andrea
Ane Miren Echebarria Mendizabal andrea
Iñaki Nafarrate Kortabarria jauna
José Ramón Uribe Uriarte jauna
Andoni Solupe Amozarrain jauna

EZ BERTARATUAK:

Martín Damián Echave Echevarria jauna

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, bi mila eta hamabiko irailaren 25ean, arratsaldeko (19:00) direnean, goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, lehenengo deialdian, Ramón Ajuria alkatearen lehendakaritzapean eta Eñaut Azkoaga Ugalde bitarteko idazkariaren laguntzarekin. Alkateak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:

OGASUNA

1.- 5/2012 AURREKONTUAREN ALDAKETA ESPEDIENTEA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

Alkateak adierazi du gai hau ez duela dagokion batzorde informatiboak diktaminatu, eta proposatu dio Udal Plenoari berresteko gai hau gai zerrendan sartu izana. Bozketa deitu du eta Udal Plenoak aho batez berretsi du gai hau gai zerrendan sartzea.

Ondoren Alkateak gaia azaldu du eta Udal Plenoak aho batez akordio hau hartu du:

“Ikusita izapidetu den 5/2012 aurrekontuaren aldaketa espedientea, Kultura Batzordeak eta Alkateak egindako eskaeren arabera.

Ikusita Idazkari-Kontuhartzailearen txostena, adierazi duena espedientea aplikagarri den araudiari egokitzen zaiola.

Kontuan hartuta 3/2004 Foru Arauaren, Araba Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei Buruzkoaren arabera, Udalbatzari dagokiola kreditu aldaketa espediente hau onartzea, Udal Plenoak AKORDIO hau hartu du:

Lehenik.- Onartzea Aramaioko Udalaren 2012ko Aurrekontuaren 5/2012 kreditu aldaketa espedientea, gastuen aurrekontu partiden arteko honako transferentziak egiten dituen:



KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA
Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

<i>Partida</i>	<i>Izena</i>	<i>Hasierako kreditua</i>	<i>Gutxipena</i>	<i>Amaierako kreditua</i>
01 610 643000	Inbentarioa	39.000€	10.000,00€	29.000€
04 451 689000	Argazki fondoa	1.500	1.440	60
04 451 480001	Patxi Ayastuy txistulariak	640,00	640,00	0
GUZTIRA BAJAK			12.080	29.060

Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

<i>Partida (*)</i>	<i>Izena</i>	<i>Hasierako kreditua</i>	<i>Gehikuntza</i>	<i>Amaierako kreditua</i>
01 120 649.001	<i>Aplikazio informatikoak</i>	0	10.000,00€	10.000,00€
04 452 227040	Kirol eskaintza	0	1.440	1.440
04 452 227040	Kirol eskaintza	0	640,00	640,00
GUZTIRA ALTAK			12.080	12.080

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoen Kontuhartzailtza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea, Udalbatzarrari egiten duen lehen bilkuran egintza honen berri ematea eragotzi gabe.”

2.- 2011KO KONTU OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

Alkateak gaia azaldu du eta Udal Plenoak aho batez akordio hau hartu du:

“Ikusita Aramaioko Kontuen Batzorde Bereziak 2012ko uztailaren 18an egindako bilkuran, aldeko irizpena eman ziola 2011 kontu orokorrari. 2012ko uztailaren 30ean Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen zegokion iragarkia, 15 egun balioduneko epean interesdunek egoki iriztitako erreklamazio, eragozpen edo oharra aurkeztu ahal izateko.

Kontuan hartuta ez dela erreklamazio, eragozpen edo oharrik aurkeztu, Udal Plenoak AKORDIO hau hartu du:

BAKARRA.- Aramaioko Udalaren 2011ko Kontu Orokorra onartzea.”

3.- ELKARKIDETZARI UDALARI DAGOZKION EKAPENAK EGITEN JARRAITZEA, BIDEZKO BADA.

Alkateak adierazi du gai ez duela dagokion batzorde informatiboak diktaminatu, eta proposatu dio Udal Plenoari berresteko gai hau gai zerrendan sartu izana. Bozketa deitu du eta Udal Plenoak aho batez berretsi du gai hau gai zerrendan sartzea.

Ondoren Alkateak gaia azaldu du eta Udal Plenoak aho batez akordio hau hartu du:

“Aramioko Udalaren enplegatuen lan baldintzak arautzen dituen UDALHITZ hitzarmenean jasotzen da Elkarkidetza langileentzako prestazio pasiboen babes sistema osagarria.

Bestalde, 2012rako Estatutuko Aurrekontu Orokorraren Legeak, 22.3 artikuluan honakoa jasotzen du:

Tres. Durante el ejercicio 2012, las Administraciones, entidades y sociedades a que se refiere el apartado Uno de este artículo no podrán realizar aportaciones a planes de pensiones de empleo o contratos de seguro colectivos que incluyan la cobertura de la contingencia de jubilación.

Hori kontuan hartuta, Udal Plenoak AKORDIO hau hartu du:



LEHEN.- Etetea 2012ko uztailaren 1etik aurrerako efektuekin Aramaioko Udalak bere langileei jubilazio kontingentziagatik Elkarkidetzara egiten dien ekarpena.

BIGARREN.- Ebazpen hau Elkarkidetzari jakinaraztea.”

INGURUMENA

4.- ARAMAIO BASARRI BARRI FUNDAZIOAN UDALAREN ORDEZKARIAK IZENDATZEA

Alkateak adierazi du gai hau ez duela dagokion batzorde informatiboak diktaminatu, eta proposatu dio Udal Plenoari berresteko gai hau gai zerrendan sartu izana. Bozketa deitu du eta Udal Plenoak aho batez berretsi du gai hau gai zerrendan sartzea.

Ondoren Alkateak gaia azaldu du eta Udal Plenoak aho batez akordio hau hartu du:

“Aramaio Basarri Barri Fundazioan Aramaioko Udalak dituen ordezkariak aldatzeko proposamena egin du Alkatetzak. Hori dela eta Udal Plenoak AKORDIO hau hartu du:

LEHEN.- Lierni Altuna Ugarte andrea udalaren ordezkaria egozte, egindako lana eskertuz.

BIGARREN.- Idoia Beitia Izurrategi andrea andrea izendatzea Udalaren ordezkaria Aramaio Basarri Barri Fundazioaren patronatuan, Ramon Ajuria Uranga eta Ane Miren Etxebarria Mendizabalekin batera.”

Alkateak adierazi du hemendik aurrera ingurumen arloa Idoia Beitia Izurrategui zinegotziak eramango duela.

ONGIZATE

5.- ARABAKO FORU ALDUNDIAREKIN EGUNEKO LANDA ZENTROAREN KUDEAKETA ETA MANTENURAKO HITZARMENA SINATZEA.

Idazkariak Ongizate batzordeak igorri duen diktamenaren berri eman du:

“Ikusita Arabako Foru Aldundiaren (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeaz baliatuz) eta Aramaioko Udalaren xedeetako bat pertsona guztien bizitza autonomia sustatu eta garatzen laguntzea dela, eta ezeren aurretik xede dela, batez ere autonomia fisikoko mugak edota gizarte mugak izan arren beren betiko ingurunean integratuta eta ingurune biei lotuta dauden adinekoren bizi kalitateari erantzutea.

Ikusita horretarako udalerrirako irtenbidea dela eguneko arretarako landa zentro bat udalerrian izatea, eta horretarako Arabako Foru Aldundiak eta Aramaioko Udalak lankidetzan aritu nahi dutela zentro hori kudeatu eta mantentzeko, eta horrez gain koordinazio esparru erkidea ezarri nahi dutela, adierazitako premiei albait eta erantzun onena emateko.

Bi aldeak ados egonda, Udal Plenoak AKORDIO hau hartu du:

LEHEN.- Arabako Foru Aldundiarekin sinatzea “Eguneko Arretarako Landa Zentroa Kudeatzeko eta Mantentzeko Hitzarmena”, eranskinean jasotzen dena*.

BIGARREN.- Alkateari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.”

*(Aktaren I eranskina)

ZERBITZUAK

6.- ONAINDIA OBRAS PUBLICAS, SA-REN T10849 FAKTURAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA.

Alkateak adierazi du gai hau ez duela dagokion batzorde informatiboak diktaminatu, eta proposatu dio Udal Plenoari berresteko gai hau gai zerrendan sartu izana. Bozketa deitu du eta Udal Plenoak aho batez berretsi du gai hau gai zerrendan sartzea.

Ondoren Alkateak gaia azaldu du eta Udal Plenoak aho batez akordio hau hartu du:



“Ikusita Onaindia Obras Públicas, SA-ren T110849 faktura, 2011ko abenduaren 29ko, 2012ko ekainaren 18an jaso zela, eta ezin izan zela 2011ko aurrekontutik ordaindu, Udal Plenoak AKORDIO hau hartu du:

BAKARRA.- Onartzea Onaindia Obras Públicas, SA-ren T110849 faktura, 17.064,00 eurotako 2012ko aurrekontuaren 02.441.227010 aurrekontu partidaren kontura.”

7.- AIADEK, SA-REN 31247 FAKTURAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA.

Alkateak adierazi du gai hau ez duela dagokion batzorde informatiboak diktaminatu, eta proposatu dio Udal Plenoari berresteko gai hau gai zerrendan sartu izana. Bozketa deitu du eta Udal Plenoak aho batez berretsi du gai hau gai zerrendan sartzea.

Ondoren Alkateak gaia azaldu du eta Udal Plenoak aho batez akordio hau hartu du:

“Ikusita Aia Dek, SA-ren 31247 zenbakidun faktura, 2011ko abenduaren 29koa, 2012ko abuztuaren 22an iritsi zela eta ezin izan zela 2011ko aurrekontutik ordaindu, Udal Plenoak AKORDIO hau hartu du:

BAKARRA.- Onartzea Aia Dek, SA-ren 31247 zenbakidun faktura, 750,98 eurotako, 2012ko aurrekontuaren 02.420.211005 aurrekontu partidaren kontura.”

HAUTESKUNDEAK

8.- 2012KO URRIAREN 21ERAKO HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIIETAKO KIDEEEN ZOZKETA BURUTZEA

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde Legearen 43. artikulua arabera eta Gasteizko Hauteskunde-Batzordearen zirkularrarekin bat etorritik, Udal Plenoak hauteskunde mahaikideak izendatzeko zozketari ekin dio.

Emaitzak ondorengoak izan dira:

A MAHAIA

Presidente: IZASKUN ARRIARAN MENDIALDUA

1º Suplente : IDOIA BITERI OTXOA-AIZPURUA

2º Suplente: XABIER CARMONA RUIZ DE AZUA

Primer Vocal: MARIA ROCIO DOMINGO SAN MIGUEL

1º Suplente: JULIAN ABAD SOLEIRA

2º Suplente: JORGE ASPE GOICOECHEA

Segundo Vocal: JESUS AGIRRE ISASMENDI

1º Suplente: NURIA BALANZATEGUI ABARRATEGUI

2º Suplente: ALBERTO ASURMENDI URRRA

B MAHAIA

Presidente: MARIA PAZ ARANZAZU SANCHEZ VILLA

1º Suplente: MARIA LOURDES VERGARA ALZURI

2º Suplente: LUIS MARIA JAUREGI BENGEOA

Primer Vocal: AINARA GONZALEZ DE MENDOZA PEREZ

1º Suplente: RAMON ORMAECHEA CECIAGA

2º Suplente: IGOR OYANGUREN IBABE

Segundo Vocal: RAFAEL GARAITONANDIA GARAIGORDOBIL

1º Suplente: LEINZI CLAUDIA NUÑEZ BALTAZAR

2º Suplente: ANGEL LOPEZ DE BERGARA ARRIOLABENGOA

Behin zozketa eginda, Udal Plenoak aho batez AKORDIO hau hartu du:

Lehenengoa.- Egindako zozketaren emaitzak onartzea.

Bigarrena.- Egindako zozketaren emaitzak interesdunei bai eta Zonaldeko Hauteskunde-Batzordeari jakinaraztea, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde Legearen 43. Artikulua jasotakoaren arabera.

UDAL GOBERNUARI KONTROLA ETA JARRAIPENA

9.- 92/12 – 124/12 ZENBAKIEN ARTEKO ALKATEAK EGINDAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Korporazio kideei 94/12 eta 124/12 Alkatearen Dekretuen berri eman die Alkateak era laburrean.



10.- BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: PRESO GAIXOEN ESKUBIDEEN ALDEKO MOZIOA.

Bildu Udal Taldeak mozio hau aurkeztu du:

**“Preso gaixoen eskubideen aldeko
MOZIOA**

Giza eskubideen ikuspuntutik egoera gordina ari gara bizitzen. Azken asteetan, Josu Uribetxeberria presoaren osasun egoera atzera ezina izan dugu mahai gainean. Legea beteaz, eta berandu bada ere, baldintzapeko askatasun egoeran geratu da preso arrasatearra. Hala ere, ba dira oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Hamahiru herritar hain zuzen ere. Egoera hau, beren egoera fisikoa eta bere senitartekoen ezinegona okertu eta areagotzea ari da eragiten. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatuz.

Hamahiru preso gaixo hauek, sufritzen dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: Espetxeak ezin duelako eskaini tratamendu bereziturik; gaixotasun hauek arreta zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik; Josu Uribetxeberriaren kasuan, argudio guzti hauek dagoeneko Madrilgo Barne Ministeritzatik ere berretsi dira.

Josu Uribetxeberriaren baldintzapeko askatasunaren ondoren, beste hamahiru dira gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak eta aipatutako argudio berdinak kontutan izanik, kaleratu behar direnak. Hamahiru preso eta beraien senitartekoak zigor gehigarria ari dira nozitzen. Preso hauei baldintzapeko askatasuna ukatuz, giza eskubideen oinarritzko zutabeak urratzen ari da Madrilgo arduradun politikoak.

Nazioarte zein estatu espainiarreko araudi, zuzenbidearen printzipio eta giza eskubideen aldeko aldarrikapenek, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona presoan eskubideak errespetatzeko beharra adierazten dute. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona horiek, beharrezkoa duten tratamendua eta zaintza medikua behar bezalako baldintzetan jasotzea, oinarritzko eskubidea delarik.

Hau guztia kontutan harturik, honako puntu hauek aurkezten ditugu Osoko Udal Batzarrera, bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezten:

1.- Udal honek, preso gaixoen egoera larriaren aurrean, bere kezka adierazten du. Era berean indarrean dagoen legea beteaz eta herritarren gehiengoaren borondatearekin bat eginaz, urrats errealak emateko deia egiten dio Madrilgo gobernari.

2.- Udal honek, nazioarteko eta espainiako legedia oinarritzat hartuaz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten hamahiru presoan baldintzapeko askatasuna eskatzen du. Beharrezkoa duten osasun tratamendua baldintza egokietan jaso dezaten eta egoera honek, bai beraientzat zein beren senitartekoentzat ere, zigor gehigarria suposatzen ez dezan.

3.- Erabaki honen berri, Madrilgo Barne Ministeritza eta Kartzela Zaintzako Epaileari bideratzea.”

Testua irakurri ondoren Alkateak bozketa deitu du eta mozioa onartu egin da, honako botoekin:

ALDE: 7 (BILDU + ARAMAIOKO ALKARTASUNA)

AURKA: 0

ABSTENTZIOA: 1 (EAJ)

11.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Iñaki Nafarrate zinegotziak adierazi du Nitro telebista katea ez dela ikusten Ibarran eta Alkateari eskatu dio gestioak egiteko dagokion erakundean kate hori ikusi dadin. Alkateak erantzun dio hala egingo duela.



Ondoren Ongizate batzordeburuak beste pleno batean egindako galderari erantzun dio, esanaz Gizarte Larrialdietarako Laguntzak Aramaion 3 familiak jasotzen dituztela esateko, batek etxeke gastuetarako, beste batek etxeke mailegua ordaintzeko eta azkenik alokairua ordaintzeko.

Honekin eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko zazpi terdiak (19:30) direnean, alkate jaunaren sinadurarekin hemen jasotzen den bilkurari amaiera eman diogu.



**ARAMAIOKO UDALA
ARABA**

Esp. kodea.: 2012APAK0003

Gaia: 2012/09/25ko UDAL PLENOAREN OHIKO
BILKURAREN AKTA

I ERANSKINA